

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak eta Solana kontseilariak harrera egin diete 2017ko Nafarroa Oinez jaiaren antolatzaileei

Heldu den igandeko festarako azken prestakizunen berri eman diete Lesakako Tantirumairu Ikastolakoek

Asteazkena, 2017.eko urriak 11

Gaur goizean, Nafarroako Gobernuko lehendakari Uxue Barkosek eta Gobernuaren eledun María Solanak harrera egin diete datorren igandean Lesakako Tantirumairu ikastolan ospatuko den 2017ko Nafarroa Oinez jaiaren antolaketa-taldeko ordezkari.

Horrela, Lehendakariak eta kontseilariak Nafarroako

ikastolen 37. jaia antolatzearekin erlazionatutako alderdien berri izan dute, eta jaira joateko gonbidapen ofiziala jaso.

Lehendakariak eta kontseilariak hauei egin diete harrera: Nafarroako Ikastolen Federazioko lehendakaria, Mikel Asiain; Federazioko zuzendaria, Josu Reparaz; Tantirumairu ikastolako lehendakaria, Amaia Lasheras; eta ikastolako zuzendaria, Aitor Irtzoki.

Lesakako Tantirumairu ikastolak bigarren aldiz antolatuko du Nafarroa Oinez, 29 urteren ondoren. 1974an sortu zen ikastola eta, gaur egun, 113 ikasle ditu.

Argakian: Ezkerretik hasita, Josu Reparaz eta Mikel Asiain, Nafarroako Ikastolen Elkarteko (NIE) zuzendaria eta lehendakaria; Uxue Barkos, Nafarroako Lehendakaria; Maria Solana, Hezkuntzako kontseilaria; eta Aitor Irtzoki eta Amaia Lasheras Tantirumairu Ikastolako zuzendaria eta lehendakaria.



La Presidenta Barkos y la consejera Solana, con los organizadores.